

Bitoriano Huiziren *Manual de Gramática* *Bascongada* (1899)

JOSÉ LUIS ERDOZIA MAULEÓN*

1. BITORIANO HUIZI: ZENBAIT DATU BIOGRAFIKO ETA GRAMATIKAREN ZERGATIA

Bitoriano Huizi González de Villazón, Etxarri Aranatzan jaio zen 1860ko Apirilaren 27an¹, egun ‘Kisostomo’² edo ‘Irurzun jatetxea’ bezala ezagutzen den etxean. Ez dakigu asko bere gaztaroaz, baina badakigu gero apaiz egin zela eta Etxarrin bertan zegoela apaiz-lanetan ‘Manual de Gramática Bascongada’ liburua argitaratu zuenean, 1899an, eta hurrengo urtean, hark berak Etxarriko Udalarri bidalitako idatzia irakurriz uler daitekeen moduan:

“Obedeciendo a órdenes de mi superior jerárquico, me veo obligado a pasar a la parroquia de Alsasua en calidad de coadjutor y contra lo que me prometía, mañana jueves 27 del corriente (1900ko Iraila), me veo precisado a tomar posesión de mi nuevo cargo; lo que me ha parecido bien comunicarle para su gobierno y fines oportunos. Me despido ofreciéndome incondicionalmente para lo que pueda, porque correspondiendo al amor que me ha tenido, le llevo en mi alma con

* Ertainetako Irakaslea.

¹ Rafael KARASATORREK-k 1868-ko egun berean zela dio (‘Etxarri-Aranazko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia’, 1990, 105), baina Bitoriano-ren heriotze agirian, argi eta garbi, 1938ko Irailaren 19a aipatzen da, 78 urte zituelarik, beraz 1860koa behar du jaiotze urteak.

² ‘Kisostomo’ izena, Crisostomo Irurzun Irañeta-rengandik datorkio, Bitorianoaren arreba Inozenziaren senarrarengandik.

todo el vecindario que representa. Victoriano Huici” (Etxarriko artxi-boa, 1900ko 107 paper sorta)

Ongi baino hobeki ikusten da ez zela bere borondatez joan herritik, garaiko Iruñako apezpikuaren agindua beteaz baizik. Eta agindu honekin, ziur aski, zerikusi zuzena izango zuen aztergai dugun gramatika argitaratzera bultzatu zuen arrazoi nagusiak. Arrazoi hori, liburuaren sarreran, bai euskarazko zatian bai gaztelerazkoan, agertzen digu, erabiliko duen euskalkiari buruzko zehazpena eta guzti. Garai hartan, Iruñako apezpikuak apaiz erdaldunak bidaltzen zituen nonbait Nafarroako euskal eremuetara, eta Bitorianori ez zitzaion hau batere egokia iruditzen:

“Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Navarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe más lengua que el baskuenz; por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana (...) debe ser en baskuenz ...” (V. Huici, M.G.B., VII).

“... eta artarako nei nauzke eman erregela batzuk nere Euskara erraz ikasteko edozeinek ...” (V. Huici, M.G.B., IV).

“Para estos (Nafarroako herri euskaldunetan dauden apaiz erdaldunei buruz ari zaigu), pues, principalmente, y para todos los que tienen algunas nociones de la misma lengua, son los preceptos que se encontrarán en este MANUAL a muy poca costa y con pocos ratos de vela; pero tambien para los que le ignoran ...” (V. Huici, M.G.B., VIII).

“Mi objeto, pues, es sujetar a reglas (y no todas inventadas por cierto), en dialecto nabarro, el baskuenz que anda hecho jiras y desfigurado ...” (V. Huici, M.G.B., VIII).

Argi uzten digu, beraz, zertarako argitaratu zuen bere ‘manual’-a, liburuaren hasieran, euskaraz eta gazteleraz egindako sarreran.

Aipatuaz gain, esan daiteke, euskarazko zatia bereziki, euskara beraren eta euskaldunen apologia dela (... *eztala izan demborarik Euskara bagekorik gendiak emen sartuziran eskeru, Nun izan da ereligio gehiago? Nun projimo lagunari amorio gehiago? Nun bake obia eta gehiago Euskaldunartian baño?... esateko dala* –euskaraz ari zaigu– *beste latinetik eldu diran denak baño ederrago eta aberatsago ongi ikasi eskeru.*), eta gure hizkuntzak betidanik izan dituen oztopoak aipatzeaz gain, garaiko eta etorkizuneko arriskuez hitz egiten digu, abertzaletasuna dariolarik zenbait pasartetan: (... *artian izan zitüben contrario denak baño aundiagokua sortuzitzaion Erdera edo Gaztela, eta onek beiti eta gaur gehiago, bere desafio eta kastiguaki nei dau debekatu ... zeñ aundia ote da Gaztelak Euskerari dion gorrotua!... nei lauke au ondatu lurretik ... erak, gu ola ezaguturik, egiñen ditüzte alegiñak gentzera guri (...)* izkuntza eta bizia, zergatik ongi dakite gendurik erribati bere asmo eta barrumbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, gentzenzaiola bere izatia bere bizitza ... jah aparte bagaunde zeñ ederki elkartuko giñake Euskaldunok denok!).

Euskararen jatorria eta garai bateko hedapenari buruz ere hitz egiten digu sarreraren hasieran: bertan sortua izan daitekeela (*Batzuek diote Zeltiberuengandik datorrela...*); Babel-go Dorrearen pasarte biblikoaren ondorio moduan (... *beste batzuek, gizonari izkuntza aztu zitzaion demborartatik...*);

eta azkenik, penintsulara etorri ziren lehenak ekarria dela. Hedapenari dago-kionez, berriz, ez du zalantzarik ‘*eusko-iberismo*’-aren teoria azaltzeko, Larramendi bera aipatzen duelarik ideia hauxe azpimarratzeko (*El baskuenz ha sido la lengua universal de España <como lo prueba difusamente el venerable Larramendi con los autores griegos y latinos más acreditados>, heredada de los primeros pobladores de ésta...*).

Euskalkien gaia, gainetik baino ez bada ere, aipatzen du hitz egiteko modu desberdinak ditugula esaten duenean (Gipuzkuan, Bizkaiyan, Iparaldeko Euskalerrietan iru modutara, eta Nafarruan Ronkalgua, Salazarkua, Aezkoakua, Eguzkialdekua eta Iparaldekoa). Eta proposamena ere luzatzen du ‘elkaraditü’ ahal izateko, ‘Iparaldeko Euskalerrietan dagon itz edo mintza modua ikasi eskero’.

Bere liburua argitaratu zuenean, Etxarriko Udalari ale bat oparitu zion, 1899ko Abuztuaren 26ko aktan agertzen denez:

Seguidamente se dio cuenta de una tarjeta presentada en Secretaria, dirigida a la corporación municipal en la cual se leía: ‘Habiendo publicado una gramática bascongada (en dialecto navarro, como parte de mis estudios en esta lengua dedicada a la Excma. Diputación y Seminario Conciliar), cúmpleme regalar a esa respetable corporación municipal un ejemplar para su archivo en señal de respeto y amor a la misma el autor Victoriano Huici, Presbítero Preceptor de gramática latina. Echarri-aranaz’. (Etxarriko Artxiboa, 1899ko 222 paper sorta).

Azkenik, R. Karasatorre-k³ esaten digu jesuiten artera joan zela, asperturik nonbait apezpiku eta honen ingurukoen euskararekiko ajola ezaz.

Bestalde, heriotze agirian agertzen denez, 1938ko Irailaren 19an hil zen Etxarrin, bere etxean, bronkioetako arnas estuagatik, 78 urte zituelarik.

2. GRAMATIKAREN IRUZKINA

Hiru arlo bereiziko ditut Bitoriano Huizi-ren liburuaren azterketa edo iruzkina gauzatzeko. Lehenik, liburua beraren egitura eta edukinari erreparatuko diot; bigarrenik, etxarriera eta Sakana erdialdeko hizkerarekiko desberdintasunak aipatzeari eskeini; eta azkenik, aurrekoan aipatutako hizkerarekiko kidetasunak azalduko ditut.

2.1. Gramatikaren egitura eta edukia

Euskaraz eta gazteleraz egindako sarreraren ondoren, autoreak ‘Gramática bascongada’ izenburuaz ematen dio hasiera bere lanari. Eta ezer baino lehen, aipatu behar da egitura nahasia eta desorekatua agertzen duela honek.

Nahasia, arlo morfologikoaren ondoren, eta ezaugarri sintaktikoak aztertzeke erabiltzen dituen ariketen (*Ejercicios de construcción gramatical*, 115) artean, hamabost orrialdeko hiztegia (76-90), gaiak (91), elkarrizketa (93) eta dotrina moduko pasartea (105-114) tartekatzen dituelako. Eta honetaz gain,

³ “Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia”, 1990, 107 orrialdea.



Bitorianoren gramatikaren azala

badirudi azken lau orrialdeak (145-148), geroz gehitu dizkiola, hizki mota eta guzti desberdintzen delarik aurrekoaz, eta gainera, justu *'corrigenda'*-ren (normalean bukaeran jartzen dena) ondoren datoz.

Egitura desorekatua agertzen duela ere esaten nuen, eta honetaz ohartzeko ondorengo datua ikusi baino ez da behar: aditzaren azterketari, ia liburu erdia eskeintzen dio (hirurogeita hamarrenbat orrialde, gutxi gora behera), eta arlo fonetiko-fonologiko eta morfologiketako beste alderdiei, aldiz, ha- maika besterik ez.

Bestalde, eta aurkibiderik ez duenez, hona hemen liburuaren edukiaren zehazpena:

SARRERA (euskaraz), I-IV orrialdeak; (gaztelera), V-VIII orrialdeak.

'GRAMÁTICA BASCONGADA':

ALFABETOA, ARTIKULOA, IZENAK, DEKLINABIDEA, IZENOR- DEAK (pertsone-izenordeak, posesiboak, erakusleak, errelatiboak, mugaga- beak eta bihurkorak), ADJEKTIBOAREN GRADUAK eta PARTIZI- PIOA. Guzti hau 1-7 orrialdeetan.

ADITZA: aditz laguntzailea (*izan*, 8-11), aktiboak (*eraman*, 11-16; *ama- tu*, 17-21; *ikasi*, 21-26; *maitatu*, 26-37; *esan egia ó egiya* (sic), 38-46), iragan-

gaitzak (*joan*, 47-50; *etorri*, 51-54; *ill*, 55-57), iragankorrak (*ill*, 57-70). Eta azken aurreko horren kasuan, adibidez, ondorengo aditz-denborak aipatzen ditu: *presente* (ohiturazko orainaldia), *imperfecto* (ohiturazko lehenaldia), *pretérito próximo* (orainaldi burutua), *pasado* (lehenaldi burutua), *futuro imperfecto* (geroaldia), *futuro perfecto* (geroaldi burutua), *imperativo*, *presente de subjuntivo*, *imperfecto* (ondorio oraina), *pluscuamperfecto* (ondorio lehena), *potencial* (ahalera oraina), *imperfecto* (ahalera lehena), *supositivo* (hipotetikoa), *condicional* (baldintza oraina), *imperfecto* (baldintza lehena), *pluscuamperfecto* (baldintza lehena burutua), *futuro* (denborazko esaldiaren egitura) eta *infinitivo* (oraina, lehena, etorkizuna, partizipioa eta gerundioa bereizten dituelarik). Eta aditz iragankorren kasuan, gainera, *objetivo* (ZER) eta *pronominales* (NORI) izaten ditu kontuan banan-banan, eta horrek izugarri luzatzen dizkio zerrendak.

ADITZONDO (lekuzko, denborazko, moduzko, kantitatezko eta bestelakoak), PREPOSIZIO, KONJUNTZIO (kopulatibo, adbersatibo, baldintzazko eta kausalak) eta INTERJEKZIOAK, 71-74 orrialdeetan sartzen ditu, eta azken honetan eta hurrengoan, azentuari buruzko aipamentuoa, gertaera fonetiko zenbait ($z+z > tz$; $d > t / z_$; *lel bokal protetikoa*ren beharra *dardarkari azkarrez hasten diren hitzetan*) eta asimilazio aurrekariaren ezeztapena.

HIZTEGIA, 76-90 (*De algunas voces más usadas en esta villa de Echarrri-Aranaz y en su comarca*).

GAIK, 91-93 (*Temas*).

ELKARRIZKETA, 93-104 (*Diálogo*).

AITA SANTUARI BURUZKO DOTRINA MODUKOA, 105-114.

GRAMATIKA ERAIKUNTZARAKO ARIKETAK, 115-138 (*Ejercicios de construcción gramatical: de pronombres y verbos, de nombres sustantivos y adjetivos, ..., del QUE relativo u oraciones de relativo, ..., de las oraciones condicionales, ...*).

HIRU IDAZLANTXO, 139-141 (*Kontu pagatzea, Echetik ateratzian, Ardotegian*).

‘HIMNO Á SAN MIGUEL’, 142-143.

‘CORRIGENDA’, 144.

ESALDI ERLATIBO, KONPLETIBO, KAUSAZKO eta KONPARAZIOZKO ZENBAIT MORFEMA eta PARTIKULA; ERATORPENENKO ATZIZKIAK; AHAL eta EZIN; eta ZENBAIT ADITZONDO, guzti hau 145-148 orrialdeetan.

2.2. Etxarriera edo Sakana erdialdeko hizkeratik aldentzen diren ezaugarriak

‘Manual de gramática bascongada’-ren egilea etxarriarra izanik, pentsa liteke bere herriko hizkuntza ezaugarriak erabiliko lituzkeela hura gauzatzerakoan, are gehiago ‘en dialecto navarro’ egin duela esaten digunean idazleak berak. Baina ez zuen horrelakorik egin, geroxeago, liburua aztertzerakoan, ikusiko dugun bezala. Damaso Intza-k ere, garbi uzten du, noiz edo noiz etxarrieraren ezaugarriren bat aipatzen badu ere, gehien bat gipuzkeraz baliatzen dela bere gramatikan:

“Bere idazti onetan garai askotan nasten du ango (Etxarrikoa) euskalkitxoaren bukaera, naiz geienean gipuzkoerazkoa erakutsi. (...) Be-



DICCIONARIO

DE ALGUNAS VOCES MÁS USADAS EN ESTA VILLA
DE ECHARRI-ARANÁZ Y EN SU COMARCA

A

Aizia	viento	ametsa	sueño
airia	aire	anima	ánima
argia	luz	adiera	entendimiento
atsaldia	tarde	arrazoia	razón
astia	semana	aztua	olvido
asiera	principio	amoriua	amor
astelena	lunes	atsegifia	alegría
asteartia	martes	atorra	camisa
astizkena	miércoles	afaria	cena
apiribilla	abril	artua	maiz
aguxtua	agosto	azala	corteza
agorra	lino	ardua	vino
azarua	noviembre	arikia	carne de carnero
abendua	diciembre	atia	pato
autsa	ceniza	arraia	pescado
atsua	vieja	amurraia	trucha
aurra	niño	arrantza	huevo
aurpegia	cara	aza	berza
agua	boca	aia	padre
agifia	muela	ama	madre
azkazkala	uña	alaba	hija
anka	pie	aituna	abuelo
aragia	carne	amifia	abuela
arnasa	aliento	anaia	hermano

Bitorianoren gramatikaren 76 orrialdea

re efiko aldaketa batzuek lena gipuzkoeraz ta ufena bere efiko erara ekartzen ditu. (...) Garai guzi auek Etxafiaranatz'ko erara dira, baño bat baño gehiago gipuzkoerazko bukaera emategatik asko aldaturik daude. Argatik ez alde batekoak eta ez bestekoak gelditu dira. Etxafiaranatz'ko euskalkitxo guzia batean argitaratzean argi ikusiko da egia.” (EUSKARA II, II. zenbakia, 1920-1921: 'Napafo'ko Aditz-laguntzalea zuketazko esakeran', 32-35).

Nik neuk ere, hala uste dut, eta ikusi besterik ez dago zein autore aipatzen dituen bere lanean. Hiru dira guztira, eta hirurak gipuzkoarrak: Manuel

Larramendi andoaindarra (v), Sebastian Mendiburu oiartzuarra (9) eta Frantzisko Inazio Lardizabal zaldibiarra (73). Lehenengo biak jesuitak eta hirugarrena Zaldibin bikario apaiztu zenetik. Eta gipuzkoarrak izateaz gain, hirurak euskal idazleak. Gipuzkera literarioaren sortzaile nagusia lehena, sermoilari bikaina bigarrena, eta gipuzkeran oinarritutako *Gramática Vascongada*-ren egile hirugarrena.

Eta guzti honetaz landa, etxarrierarekin bat ez datozen hainbat eta hainbat ezaugarri ikusi ditut Bitorianoren liburuan eta, lantxo honetan, aipagarrienak baino ez ditut jasoko:

– Bokal asimilazioa sistematikoki ekiditen du, bai liburuaren sarreran, bai hiztegian. Hori, hiztegia *de algunas voces más usadas en esta villa de Echarri-Aranaz y en su comarca* dela, eta, jakina denez, Etxarrin erabatekoa da asimilazioa: *aizie, argiye, atsaldie, autse, aitte, amiñe, eskube, ...*

– Bestalde, Etxarri ondoko Arbizu, Unanu, Dorrau eta Arruazun, ez da asimilaziorik gertatzen absolutiboko mugatzaile singularraren kasuan, baina bai mugatzaile plurala edota ergatiboaren morfemak eransterakoan, eta Bitorianok, hala ere, asimilaziorik gabeko burutzapenak erakusten dizkigu: *gendiak, guchikuak, Euskaldunak, irutanaun, ...*

– Asimilazio atzerakaria ez dut behin ere jaso duenik ikusi ez sarreran, ez hiztegian ere: *hamaika, amairu, gañean, gaizki, naiz, ...*

– Ez du *eu > au* diptongoaren irekiera ere kontuan hartzen: *eun⁴, euliya, euriya, eutsi, ...*

– *z + z > tz* egiten du Huizi-k, etxarrieran berean mantentzen delarik txistukari igurzakaria: “...; *ni el por qué de cuando la dicción precedente finaliza con z y la siguiente comienza con la misma letra, se cambia en t; v. gr.: etzuen pensatzen – etzaukan onik, ...*” (74)

– Deklinabideari dagokionez, garai hartan ere prestijiodunak izan zitezkeen formak erabiltzen ditu, bokal arteko *-r-* xamurra mantentzen duelarik: *Mariari, Mariarekin, ...* (etxarrieran, *Mariari, Mariaki, ...* izango lirateke).

– Etxarri eta inguruan erabiltzen ez den deklinabide morfemaren bat ere azaltzen du, hala nola destinatiboko *-rentzat, -(r)endako* delarik Sakana erdialdean erabiltzen dena: *Mariarentzat / Mariandako, ...* Bere paradigmako izen arrunt eta bizigabearen kasuan, aldiz, bai erabiltzen du *-arendako* morfema, baina kasu bakarra da, izenordain eta erakusleen kasuan, berriro *-rentzat* morfemara itzultzen baita: *lurrendako*.

– Ergatiboari dagokionez, ez du sinkretismorik aipatzen eta gaineratzen du *e* ezartzen diotela batzuk pluralari, singularrengandik bereizteko, ondorengo adibideak ematen dizkigularik: *gizonák egiñen dau – gizonek egiñen dute*.

– Aditz forma gehienak *gipuzkeratuak* agertzen ditu: *zera, gera, zerate, degu, dezute, nintzan, giñan, ziñaten, zenduen, genduen, nuen, ...* Gaur egungo etxarrieran horrela esango genituzke: *zaa, gaa, zarie, diau, dezubie, nitzen, giñen, ziñien, ziñuben, giñuben, neen, ...* Eta harrigarria bada ere (oso aipatua izan da beti aditz era honetako *-ki-* erroa), ez du NN₁ erako aditz forma bat bakarra ere aipatzen aditzaren atalean (hauxe da gainera bere gramatikaren

⁴ Harrigarria bada ere, behin behintzat, bai irekitzen du *eu* diptongoa, eta gainera, ireki gabe utzitako adibidearen ondoren: ... *eun, irutanaun...* (2).

zatirik luzeena), ez era standard-izatuan (zait, zaio, ...), ez Sakana erdialdekoan (dakít, dakiyo, ...). Sarrerako idatzian bai, agertzen dira NN_I erako aditz formak, lau guztira, eta horietako hiru -za- erroarekin eta bat bakarra bertakoa: *zitzaion, zaiola, zait, ... bearlakiguke* (behar litzaiguke). Liburuaren bukaerako *dialogo*-etan bai agertzen zaizkigu Etxarriko NN_I erako aditz formak, baina horiek gero aipatuko ditut.

– Sintaxiari begiratuz, *Ejercicios de construcción gramatical* atalean agertzen ditu zenbait esaldi mota (erlatibozkoak, helburuzkoak, kausalak, baldintzazkoak, konpletiboak, moduzkoak, ...), baina soilik esaldien arteko juntadura-morfema orokorrak erabiltzen ditu: -(e)la, -(t(z)eko, -(e)n, -(t(z)eagatik, -z, ... Kausalei dagokienez, esaterako, ez dira agertzen hain erabiliak diren *-lakos* eta *bait-*; ezta erlatibozkoetan *-tako* eta *-ikeko* ere; edo moduzko *-n bezela/moduben/eran/kisen* bezalakoak.

– Eta lexikoari erreparatzen badiogu, lehen aipatu asimilazio kontuaz gain, Etxarrin behintzat erabiltzen ez diren ondorengo hitzak aurkitu dizkiot. Lehen zutabea, Bitorianok aipatzen dituenak jarriko ditut, eta bigarrenean, berriz, egun erabiltzen direnak:

<i>Zankua</i> (pantorrilla)	<i>Aztala</i>
<i>Zoriya</i>	<i>Suertie</i>
<i>Urbildu</i>	<i>Gertutu</i>
<i>Ura</i>	<i>Utse</i>
<i>Señuba</i>	<i>Geñube</i>
<i>saski</i>	<i>Jaski</i>
<i>ordikeriya</i>	<i>Mozkorkeye</i>
<i>orriya</i>	<i>Ostue</i>
<i>oiya</i>	<i>Guatzie</i>
<i>ontziya</i>	<i>Auntziye</i>
<i>okullua</i>	<i>Estarbiye</i>
<i>odolkiya</i>	<i>Tripota</i>
<i>mintzatu</i>	<i>Itzein</i>
<i>miliskatu</i>	<i>Limixtetu</i>
<i>maingutu</i>	<i>Makittu</i>
<i>jostatu</i>	<i>Jolastu</i>
<i>jagi</i>	<i>Jai</i>
<i>igaro</i>	<i>Pasatu</i>
<i>iragi</i>	<i>Irai</i>
<i>izeregi</i>	<i>Izerai</i>
<i>iyo</i>	<i>Itzo(o)</i>
<i>irichi</i>	<i>Alla(a)tu</i>
<i>iduki</i>	<i>Urai</i>
<i>illarra</i> (zarza)	<i>Larra</i>
<i>gura</i>	<i>Gogo</i>
<i>eutsi</i>	<i>Auskin</i>
<i>ebaki</i>	<i>Ebai</i>
<i>erosi</i>	<i>Yosi</i>
<i>erantzun</i>	<i>Yantzun</i>
<i>eranzi</i>	<i>Yantzi</i>
<i>euliya</i>	<i>Auliye</i>

<i>euriya</i>	<i>Auriye</i>
<i>eun</i>	<i>Aun</i>
<i>arras</i>	<i>Arraso</i>
<i>anitz</i>	<i>Asko</i>
<i>arana</i>	<i>Oka(a)na</i>
<i>akillua</i> (aguijón)	<i>Txistera</i>
<i>elbarriya</i> (manco)	<i>Besomotz</i>

2.3. Etxarriera edo Sakana erdialdeko hizkerarekiko kidetasunak

Eta gutxi badira ere, erabiltzen ditu etxarrieraren zenbait ezaugarri, gehien bat sarrerako euskarazko zatian eta bukaerako ‘dialogos’-etan, ez ordea hainbeste gramatikan bertan:

– **Bokalismoari** erreparatuz, Etxarrin suertatzen diren zenbait bilakabide jaso ditu, deklinabideko morfema, diptongo, sandhi eta abarrei dagozkienak:

- Deklinabide morfema eta sandhi-etako burutzapenak: *Zeltiberuengandik, demborartatik, libertadioki* (libertade horiekin),
- ei > i: *bintzet*,
- ai > ei: *nei* (nahi), *geizto*
- o > u / _ n: *nun*
- Asimilazioak: *bezela*, , *aldemen*, *emen* (omen), *se–ele*.
- -au- diptongoa NN_K erako aditz formetan : *lauke* (luke), *dau* (du),
- u – u > i – u: *irruiti*,
- Maileguetako –on bukaera mantendu egiten da: *pantalonak ez baiyagonak* (139), *millona* (2).

– **Kontsonantismoari** dagokionez, badira ere zenbait kasu aipagarri:

- z + d > zt: *eztala*, *eztau*...
- -s instrumentala, *berris*⁵, *burnisko*, *bildurres*, ...
- palatalizazioa: *baño*, *Mañuelek*, *ollua*, *zitüben* (zittuben), *gaitü* (gaittu)...
- k/g txandaketa: *gendu* (kendu)
- h,g,n, d > y / i_ : *iyori* (inori)
- l,n,r ondoren frikaria: *deskansatzeko*, *zarzaro*...

– **Ezaugarri morfologiko** zenbait ere, etxarrierakoak erabiltzen ditu:

- Aditz formei buruzkoak batez ere: *zala* (zela), *dau*, *eztau*, *lauke*, *bagaunde*, *eldu* (etorri aditzaren orainaldi burutugabeko formatzat jasotzen du, hala ere, *nator*, *zatoz*, *dator*, ...hobesten dituelarik, 51), *nauzke*, *dezubie*⁶, *debie*, *ziñubien*, *zebien*, *niezu* (didazu),

⁵ Horrela jasotzen du Bitorianok *preposizioen* atalean, 73 orrialdean: “z, y en los dialectos alto narro meridional y la mayor parte del septentrional la “s–s, y la terminación *as*, modal instrumental: *Gracias betia da Andra Maria*”.

⁶ Inguruko herrietako emaitzak ere aztertzen ditu 16 orrialdean: *He notado que las segundas y terceras personas del plural, en varios tiempos de los verbos, son diferentes en algunos pueblos importantes de la Barranca. En Echarrí Aranaz, Arbizu y Lakuntza se usa la terminación BIE: amatu dezubie –erosi biau zubie–ikasiko debie–eraman bear debie; en Errigoyena se usa la terminación DEZIE: jandezie–illdezie; en la Borunda, DEZEI: ikusi dezei–jandezei, y algunas otras variaciones de menos importancia que, según mi pobre criterio, son degradaciones del gipuzkoano y bizkaino.*

- Erakusleen zenbait forma: *harrek/arrenak, harrilarrenari, harrekin/arrerekin*.
- -kazo atzikia: *labankazo*.
- Aipatzen du Nafarroan, geroaldiko *-ko* morfemaren ordeztu, *-en* erabiltzen dela: *izanen* eta *izain* (azken hau Unanun daukagu bizirik), *illen, esanen, ...*
- Lehenago aipatutako NN_I erako aditz formak, Etxarrikoak, gutxi badira ere, erabiltzen ditu liburuaren bukaerako atalean: *sartu dazki gu (96), gelditzen dakigun (98), gertatu dazkigu (99), gogoratu zakion (101), daitzen dakio (102), Áay au pena! eztakit etorko gau erdiraño (140)...*
- Azken adibide horretan ikus daiteke, bestalde, aditz partizipioaren bukaerako -i bokalaren sinkopa, *etorko*.
- Joan aditzaren aginterazko forma bereziak ere agertzen dira: *ordek diote lagunak ordek (139)*.
- Eta pasarte berean, NN_K erako aditz laguntzailearen *-z-* pluralgilea: *gonak jantzi bear auzke ik (139)*.
- Aditzaz gain, etxarrieran usu erabiltzen den posposizioa ere agertzen da, behin gutxienez: *eta protestantiaren albizona (99)*.
- Ez partikula deklinatu egiten da izenordain mugagabeekin: *ezer ez etarako gauza etzala* (ezertarako gauza ez zela) (140).

– Etxarriko **lexiko**arekiko kidesan: *auspes* (ahozpez), *opatu* (aurkitu), *aldemen* (auzo), *ka(b)itu* (garaitu), *ziderra, zarzaro, urriyela* (iraila), *sugendilla, pixela, ordiela, opuela, iñezturela* (berak *oñeztura*), *munuela, miela* (meh), *me(d)arra, masustela, marrubiyela, menddere* (berak *mainderia*), *maskubi, lasatu, leyela, la(r)atza, loyela, luxintxela, kupittu, ke(d)arra, koipiela, kolko, jatekuela, iyeiketu* (berak *iyarikatu*), *indderzube* (berak *inyarsuba*), *iderra, izeba, illeba, iyote, ilbeltza* (urtarrila), *iyende* (berak *iyandia*), *guziela, gilddek* (berak *gillyak*), *gaztanbera, galtzin, gorrotiñela, ferratu, etzin, errena, erreyek* (berak *erraiyak*), *txekorra, txingurri, txube* (berak *chistua – tüba*), *iñezturela* (berak *chimista – o-etzura*), *bulketu, bieldu, bentza(r)i, bildur, asarratu, aurrena, ariela, a(l)mimoro, alki, ata(r)i, arotza, amiñela, aittunela, arrontza, atorra, bilintzi-balantza, argi ezkillu, bage* (> bae > bee, horrela erabiltzen da Etxarriin)...

BIBLIOGRAFÍA

- ARAKAMA, Josemari: *Uharte-Arakilgo dotrina*, ASJU-ren gehigarriak, 28-2 zb., 1994.
- GAMINDE, Iñaki: *Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa*, FLV 69, 297-321, 1995.
Aditza: Ipar Goi Nafarreraz, UEU, 1985.
- HUALDE, J. I.: *Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak*, Uztaro, 18 zb., 49-60, 1996.
Basque Phonology, 1991.
- INZA, Dámaso: *Napañoiko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran*, Euskera II, II zenbakia, 1920-1921, 32-35 orrialdeak.
- IRIZAR, Pedro: *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Bilbo, 1991.
- IZAGIRRE, Kandido: *Altasuko euskeraren gai batzuk*, ASJU 1, 45-97, 1967.
- KARASATORRE, Rafael: *Barranca Burunda*, 1993.
- KARASATORRE, R.; ERDOZIA, J. L.; ULAIAR, E.: *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz Elkarreko hiztegia*, Altaffaylla, 1991.
- MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren gehigarriak, 1985.

- SOLIS, Gregoria: *Lizarragako euskararen azterketa*, FLV 62, 95-124, 1993.
ZUAZO, Koldo: *Burundako hizkera*, ASJU-ren gehigarriak, 28 zb., 297-364, 1995.
Euskalkiak gaur, FLV 78, 191-234, 1998.
Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional, Iruñea, 1992.

LABURPENA

Duela ehun urte, 1899an, Bitoriano Huizi apaiz etxarriarrak *Manual de Gramática Bascongada* liburu argitaratu zuen. Eta artikulu honetan, autorearen zenbait datu biografiko emateaz gain, liburuaren iruzkina egin nahi izan dugu, hots, apaiz etxarriarraren lanari buruzko gure iritzi edo ikuspuntua azaldu. Alde batetik, egilearen zio eta helburuak jasotzen ahalegindu gara, beti ere berak sarreran eta Etxarriko Udalarari bidalitako oharretan esandakoan oinarriturik; eta bestetik, gramatika beraren edukina aztertu dugu, zein arlo jorratzen dituen ezagutarazteko, eta norainoko atxekimendua erakusten duen bere herriko hizkerarekiko erakutsi asmoz.

RESUMEN

Hace exactamente cien años, en 1899, el sacerdote etxarriarra D. Victoriano Huizi publicó su *Manual de Gramática Bascongada*. En este artículo, además de algunos datos biográficos del autor, hemos querido realizar un comentario del libro, es decir, aportar nuestro punto de vista acerca de dicho trabajo. De una parte, hemos intentado reflejar las motivaciones y objetivo del autor, siempre basados en las aportaciones que al respecto realiza el mismo, en la introducción y en notas enviadas al Ayuntamiento de Etxarri; y de otra, hemos analizado el contenido de la gramática en sí, dándolo a conocer, e intentando así mismo mostrar el nivel de afinidad para con el habla de su localidad.

RÉSUMÉ

Cela fait exactement cent ans, en 1899, que le prêtre d'Etxarri, Victoriano Huizi publia son *Manuel de Grammaire Basque*. Dans cet article, outre quelques données biographiques de l'auteur, nous avons voulu réaliser un commentaire sur le livre, c'est à dire, apporter notre point de vue sur ce travail. Nous avons essayé d'une part, de refléter les motivations et les objectifs de l'auteur, en se basant toujours sur les données apportées par lui même à ce sujet, dans l'introduction et dans des notes envoyées à la Mairie d'Etxarri; et d'autre part, nous avons analysé le contenu de la grammaire en soi, en le faisant connaître, et en essayant aussi de montrer le niveau d'affinité à l'égard du parlé de sa localité.

ABSTRACT

Exactly one hundred years ago, in 1899, the Etxarri priest Victoriano Huizi published his *Manual de Gramática Bascongada* (Basque language Grammar Manual). In addition to offering some biographical information about the author, we wish to comment on the book, i.e. offer our own point of view about the work. On the one hand, we try to reflect the author's reasons and objective for writing it, basing ourselves always on the relevant information the author himself tends in the introduction and the notes he sent to the Etxarri Council; on the other, we analyze the grammatical content in itself, explaining it and, at the same time, trying to demonstrate the degree of affinity revealed with the spoken language from his locality.